

EKIS enpresako bazkideok futbol jokalariek izaten duten ohiko arazo bati irtenbidea emango dion produktu bat burutu dugu. Futboleko galtzerdien gainean jartzen den zinta bat da, hauek erortzea ekiditen du eta beraz jokalariai eroso joka dezake futbolean eta ez du hortaz kezkatzeko beharrik. EKIS zinta beste produktuetatik bereizten duena produktuak duen diseinu aparta da. Gaur egun futboleko galtzerdiak eusteko zinten merkatuan bi motatakoak aurki ditzakegu: gomazkoak eta belkrozkoak. Ekis zintetan gomazko zinten abantaila nagusiak eta belkrozko zinten abantaila nagusiak elkartu ditugu bezeroak erabilera aproposa eduki dezaten. Hau da, goma erabiliz tamaina guztietako hanketara moldatzen den zinta lortuko dugu eta belkroarekin gomak egiten duen funtzioa ahalik eta denbora gehien irautea eragingo du presioa mantenduz.

Enpresak eskaintzen duen xede nagusia futboleko galtzerdien erabilera hobetzea da; hau da, bere lekuan mantentzea, horregatik prestazio bat eskaintzen dugu. Zehazki, balio kualitatiboko prestazioa bat. Diseinu landu bat dugulako bere funtzioa hobea izan dadin.